

Aita Juan Mateo Zabala (1777-1840)

Bizitza

Benetako euskaltzale dogu prantsizkotar aita au. Bilbao'n jaio zan 1777'eko irailaren 21'an, San Anton'go eleizan bateaturik urrengo egu-nean. Bakiotarra eban aita ta Billarokoa ama. Añibarro ta Zabala, erri bateko lez, adiskide kutunak genduzan. Eta euskaldun sukalde artan sortu yakon Zabala'ri gerora beti biotzean, arantza lez, josita erabiliko eban euskerarekiko kezka.

Amabost bat urte zituala, latin eta gaiñerako eliz-ikasketak Bilbo'ko prantsizkotarren komentuan egin ondoren, beste nunbaiten —Santander'en, Araba'n, Gaztela'n?— artu eban praille jantzia, Bilbo'tik kanpora beintzat. Eta, gaiñera, Gaztelerrian osotu zitun, berak diñoskunez, Teologia ta onen inguruko beste eliz-ikastaroak. Eta, zelan ez?, aitzu egin yakon amaren magalean ikasitako euskera, edo beintzat, mezakotu zanean ez eukan egokitasunik, erreztasunik autortzeko ez Jainkoaren Itza, bear lez, erriz erri zabaltzeko. Orduan asi zan barriro euskeraz ikasten, Larramendi ta Astarloa'ren lanak irakurriaz batez be.

Buru argiko ta jakintsu etorren ezkeru, 1804'an Filsofi-irakasle izen-tatu eben Bilbao'ko lekaidetxean; lau urtetan jardun eban egiteko orri loturik, au da, Napoleon Bonaparte'k, 1808'an, praillearen komentuetatik jaurti zituan arte. Ordu estu areitan, ara ta koro ibili yakun Aita Zabala, beste askoren antzera, Galizia'ko Herbon eta prantsizkotar mi-xiolarien ikastetxetik eta abar.

Azkenez, sorterri miñak joa edo, Zarautz'ko mixiolari-komentua es-katu ta lortu eban; eta ementxe bizi izan zan 1815'ko urrillaren 15'tik il arteraiño, beti langille zintzo. Berton il zan, 63 urtekin, 1840'eko otsaillaren 6'an.

Zarautz'ko itxasalde atsegingarrian egin zitun 25 urte orreik etziran ezelan be elkor gertatu. Ortarako gai ta trebe zan ezkeru, izlari ibilli yakun or-emen, Bizkaia'n baitik bat. Eta onela, bide batez, errietan ari ta oni itanduaz eta itz egiñaz, bere jatorrizko euskera sakonago ikasi ta aztertzen saiatu zan. Edu onetan, batez be, osotu al izan eban az-kenik bere bizkaierazko aditzaren saiakera ederra.